

**Proiektuaren izena:** ZUTIK  
**Lantaldeko kideak:** Ane, Irati eta June

# ZUTIK

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Ongizate soziala da gure proiektuaren balorezko proposamenaren ardatz nagusia. Ingurumenaren zainketa (ekonomia zirkularra) eta gaur egun gure herrian/ gizartean beraien biziak aurrera eramateko arazoak dituzten emakumeak txertatzea eta hauen bizi-kalitatea hobetzea ere dugu helburu bezala.

Horrez gain, ekonomia jasangarriaren alorrean ere lan egitea nahi dugu, horrela ahal dugun einean ongizate soziala ere lortzeko. Gure produktuak material birziklatuarekin ekoiztuko ditugu, hau da, gure bezeroek ekarritako materialekin egingo ditugu gure diseinuak eta hau nahikoa izango ez balitz, bigarren eskuko materialak ere erosiko ditugu.

Gure xedea, pertsonen eta ingurumenaren kalitatezko garapena bilatzea da, lurraren osasuna kolokan jarri gabe. Hauxe izango da besteengandik bereiztuko gaituena.

